Gure gizartean azken urteetan sortu diren hainbat faktorek egoera txarretan ere (mendekotasun-maila larria, gizarte-babesik eza...) bizitza bete-betea bermatzeko behar diren zerbitzuei buruzko gogoeta egitera eraman dute gizartea. Hor daude, adibidez, bizi-itxaropena luzatu eta adin-piramidea aldatu izana; adinekoen hazkunde demografikoa, garbia nahiz erlatiboa; familia-harremanetan sortutako aldaketen ondorioz, instituzio hori jadanik ez izatea senideak babesteko eragile nagusia (ez iraganean bezainbeste behintzat); eta hor dago, era berean, azken urteotan gizarte-zerbitzuek izan duten garapen eta bultzada handia.

Testuinguru orokor horretan, pertsonek behin eta berriro adierazten dute ahalik eta luzaroen jarraitu nahi dutela beren etxeetan, bizitza osoan izan duten erreferentziako gizarte-sareari eutsiz. Oso aintzat hartu beharreko kontua da hori, pertsonen mendekotasun-egoera areagotzen den heinean beharko dituzten lagunza-zerbitzuak zehazterakoan. Alabaina, etxeko inguruneak, etxerako sarbideek, komunitateko lagunza-zerbitzuek eta abarrek alderdi asko biltzen dituzte, eta nabarmen murrizten dute mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsonak bere bizitza behar bezala garatzeko aukera.

Areago, horren desiragarria den asmo horrek talka egiten du beste pertsona batzuek bizitza osotasunean gozatzeko asmoarekin, bizitzaren etapa batean beste batzuk zaintzeko eginkizun nagusia hartu beharko baitute. Errealitate horrek emakumeei eragiten die bereziki, historikoki emakumeak izan baitira, eta oraindik ere badira, familia-inguruneko zaintzez arduratzen direnak. Eta zaintzen beraien krisi sistemiko batean gertatzen da hori. Izan ere, hainbat elementuk hautsi eta eten egiten dute gure pertsona maiteak beraien bizitzako eremu naturalean (etxeen eta auzoan) zaintzearen jatorrizko asmoa. Asmo horren kontra egiten dute, besteak beste, bizi-itxaropena luzatu izanak, emakumeak lan-merkatuan sartzeko joera egoki eta desiragarriak, zaintza emakumeen kontua delako ideia ahulduz joatearekin batera, gizonezkoek jardun hori beren gain hartu nahi ez izateak...

Familiak eskaintzen duen zaintza eta zorroko gainerako zerbitzuak (etxez etxeko lagunza-zerbitzua eta eguneko zentroa...) autonomia sustatzeko zerbitzuen bidez osatzen badira ere, zaintzaileei laguntzeko zerbitzuei esker, arrakasta handiagoz eusten zaio familia askok eremu horretan mantendu nahi duten zaintza ez-profesionalari, hurbilari eta iraunkorrari, aldi berean goitik behera baldintzatu gabe zaintzailearen bizitza pertsonala eta osasun fisikoa eta psikologikoa. Azpimarratu beharrekoa da bi zerbitzu-motak elkarren artean osagarriak direla, beste zerbitzu batzuen (hala nola etxez etxeko lagunza-zerbitzuaren eta eguneko zentroaren) graduazioek beraien izaera teknikoarenengatik familia-zaintzaren eta zerbitzu instituzionalen artean lagatzen dituzten tarteko espazioak betetzen dituztelako.

Beste alde batetik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat, mendekotasuna duten pertsonak etxe-ingurunean zaintzearen alorrean gertatu ohi diren egoera bereziak direla eta (emakumeak hartzen baitu zaintza-lanaren ardura ia osoa), Ermuko Udalak zaintzaren banaketa ekitatiboa sustatzeko konpromisoa hartu du. Horretarako, gizonezkoak mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzan parte-hartze handiagoa izateko pizgarriak ezarriko ditu eta, aldi berean, emakume zaintzaileei atsedena hartzeko zerbitzuak eskainiko dizkie. Ildo horretan, eta gainerako udal-politikan ezarri beharreko neurriei kalterik egin gabe, neurri zuzentzaile egokiak finkatuko dira, oro har, familiei laguntzeko zerbitzuak eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak artatzeko zerbitzuak arautzeko ordenantzetan.

Izan ere, zerbitzu horiek baliabide baliotsuak dira zaintzei aurre egiten dieten familientzat. Eta are gehiago mendekotasun-egoeran dauden pertsona zaintzeko ardura osoa hartzen duten senideentzat, familia zabalean eginkizun horretan lagunduko dien beste inor izan gabe, eta bestelako zerbitzu espezifikoak gehiago edo gutxiago erabiltzen dituztenentzat.

Dena dela, ordenantza honetan zehazten diren zerbitzuen asmoa ez da, inolaz ere, familiak ematen duen zaintza jarraitua ordeztea, ez eta pertsonak jaso dezakeen etxez etxeko laguntza-zerbitzua ordeztea ere. Ildo beretik, ez dute hartzen familiaren lekua genero-bereizkeriarik gabeko zaintza partekatuan, ez eta familiei eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonei beharrezko zerbitzuak emateko ardura publikoaren lekua ere. Familiari atsedena eskaintza eta zaintzaileei laguntza da zerbitzuon helburua, eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonaren gaineko terapian laguntza ere bai. Horiek horrela, ahalegin handia egingo da mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintza integral eta oso horren ordez, pertsona horiek «nonbaiten gordetzeko» zerbitzu hutsa ez izateko.

Udalak ordenantza bidez araututako beste gizarte-zerbitzu batzuetan gertatzen den bezala, zerbitzua eskuratzeko aukera-berdintasuna bermatu behar du herri-administrazioak, betiere eskataile bakoitzaren premia aintzat hartuta; eta, ildo beretik, erabiltzaileak zer partaidetza ekonomiko izango duen zehaztu behar du, haren diru-sarrerak aintzat hartuta. Horrekin batera, zerbitzuari eta zerbitzuak jasotzeko eskubideei buruzko esparru garbia eskaini behar die herritarrei. Araudi honek, hain zuzen, hori guztia bildu nahi du, zerbitzua eskuratu nahi duten pertsonei beraien eskubide eta betebeharrauk ulertzten lagunduko dieten elementu argi eta operatiboak eskainiz.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzu- eta prestazio-zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak arautzen ditu, eta EAEko herri-administrazioentzako betebeharrauk xedatzen ditu horren harira, 33. artikuluan. Zehazki, 1.4. atalean zorroko zerbitzutzat jasotzen du zaintzaileei laguntza, eta atal horrexetan sartzen da, hain zuzen, aipagai dugun atsedenerako zerbitzua.

## 2 LEHENENGO TITULUA

### **1. artikulua. Xedea.**

Autonomia sustatzeko eta zaintzaileei laguntzeko zerbitzuak arautzea da ordenantza honen xeda.

### **2. artikulua. Aplikazio-eremua.**

Ordenantza honek arautzen dituen zerbitzuak Ermuan jorratuko dira, alor horretako legeriak udalei gizarte-zerbitzuen alorrean aitortzen dizkien eskumenen esparruan. Honako hau da legeria: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, eta autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea.



## AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA ZAINTZAILEEI LAGUNTEZEKO UDAL-ZERBITZUAK ESKURATZEKO PROZEDURA

. ORRIA

### **3. artikulua. Zerbitzuen definizioa.**

Honako hauek biltzen dituzte zerbitzuok: mendekotasuna edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonei eta I. eta II. mailako mendekotasuna duten pertsonei eta beraiekin bizi diren familiei zuzendutako baliabideak, euren bizitza pertsonala, lanekoa eta etxekoa bateragarri egiten laguntzeko. Hala, zaintza-eginkizuna familia-ingurunean betetzen laguntzen du eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko nahiz mendekotasuna duten pertsonek euren burua zaintzeko ezagutzak zabaltzen ditu.

I. eta II. graduko mendekotasuna duten pertsonentzako zerbitzu terapeutikoak ere badira, ingurune profesional batean artatu eta beraien gaitasun psikofisikoak hobetzeko esku-hartzeak egiten dituzte eta.

Halatan, pertsonak etxearen jasotzen duen arretari jarraitutasuna eskaintzen dio baliabide horrek eta, beste norabidean, zerbitzuak pertsonaren etxearen jasotzen du bere betebehar eta helburuen jarraitutasuna. Helburua, betiere: familiaren edo zaintzaile nagusiaren gainkarga, akidura edo amore emateko erabakia saihestea.

Zerbitzuek familia-inguruneko zaintzei eustea bilatzen dute, jakinik zaintzeko era baliotsua izan arren, gaitza dela denboran eustea eta, gainera, genero-desberdintasun handia dagoela, gehien-gehienetan emakumeen esku geratzen direlako.

Honako zerbitzu hauek sartzen dira «Autonomia sustatzeko eta zaintzaileei laguntzeko udal-zerbitzuak» izeneko epigrafean:

1. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua.
2. Atseden terapeutikorako zerbitzua zentroan.
3. Autonomia sustatzeko zerbitzuak (adinekoentzako memoria- eta psikomotrizitate-tailerra, jarduera okupazionalak, aisiaaldiak eta esparru horretan egin daitekeen beste edozein zerbitzu).

### **4. artikulua. Zerbitzuaren helburuak.**

Hona hemen zerbitzuaren helburuak:

- Familiei mendekotasuna duten pertsonentzako aldi baterako arreta-zerbitzua ahalbidetzea.
- Familiareniko eta gizarteareniko harremanak ahalbidetu eta hobetzea.
- Ohiko zaintzaileak gainkarga jasan duelako, familiaren edo norberaren krisi-egoerak prebenitu eta arintzea, edota epe ertain edo luzera zaintzetan amore emateko erabakia saihestea.
- Mendekotasuna duen pertsonak familia-ingurunean jarrai dezan ahalbidetzea.
- Arreta profesionala eta pertsonalizatua eskaintzea, familia-inguruneko zaintza baliotsuak baztertu gabe.
- Familia-inguruneko zaintzan generoen arteko desoreka gutxitzen laguntzea.
- Ohiko etxebizitzako ingurunean eskura ez dauden terapiak eta tratamenduak ahalbidetzea.
- Familia-ingurunean emandako zaintzen kalitatea hobetzen laguntzea.
- Zaintzako erantzunkidetasuna ahalbidetzea.

- Beste inor zaintzeko nahiz norberaren burua zaintzeko jakintzak, jarrerak eta trebetasunak eskuratzeko aukera ematea.
- Adineko pertsonei autonomia pertsonalari eusten laguntza, mendekotasun-egoerak atzeratuz eta etxearen ahalik eta luzaroen egon daitezen ahalbidetuz.

Bestalde, berariazko helburua ez bada ere, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren hurrengo mendekotasun-faseetan akaso behar izango duten ezagutza eta konfiantza eta baliabide profesional komunitario batzuk eskaintzen dizkiete baliabide horietako batzuek familia zaintzaileei. Horri esker, eguneko zentroaren eta egoitzaren berri izan eta, egoerak hala eskatuz gero, zerbitzu horietarako trantsizioa ahalbidetzen dute.

## **5. artikulua. Printzipio orokorrak.**

Hona hemen aipatutako zerbitzuak emateko jarduna arautzen duten printzipio orokorrak:

- Normalizazio- eta integracio-printzipioa: zerbitzua Bizkaiko Foru Aldundiaren eguneko zentroaren eremuan emango da, komunitatean dauden baliabide normalizatuak erabiliz.
- Sustapen- eta autonomia-printzipioa: erabiltzailearen eta familiaren trebeziei ahalik eta luzaroen eustea ahalbidetu beharko da; ondorioz, ez dira haien ordez egingo beraiek egin ditzaketen eguneroko jarduerak.
- Partaidetza-printzipioa: mendekotasun-egoeran dagoen pertsonak eta haren familiak arreta-plana prestatzen parte hartzea ahalegina egingo da.
- Globaltasun-printzipioa: osoko arreta emango da eta, ildo horretan, balio anitzeko laguntza eskainiko zaie, erabiltzaileen (mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta familien) askotariko beharrizanak estaltzeko.
- Profesionalizazio-printzipioa: zerbitzuaren arduradunek nahiz zuzeneko arretako langileek konpetentzia profesional egokiak izango dituzte.
- Indibidualizazio-printzipioa: zerbitzuaren onuradun guztiek, euren egoeraren balorazioa eta diagnostikoa egin ondoren, beraiei eta familiei egokitutako arreta-plan indibidualizatua eskuratuko dute.
- Osagarritasun-printzipioa: zerbitzu hori beste prestazio tekniko, ekonomiko eta teknologiko batzuekin egituratu ahal izango da, indarrean dagoen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren Dekretuan jasotakoarekin bat.
- Prebentzio-printzipioa: zerbitzua ematean, prebentzioaren alderdia ere hartu beharko da aintzat, erabiltzailea eta haren familia ez narratzeko.
- Inklusio-printzipioa: zerbitzua ematean, onuraduna eta familia komunitate-ingurunean txertatzeko ekintzak aurreikusi ahal izango dira.

## **6. artikulua. Zerbitzuak eta prestazioak aldi berean erabiltzea**

Ordenantza honetan araututako zerbitzuak mendekotasunaren arretarako zerbitzu guztiekin bateragarriak izango dira, salbu eta ostatu- edo egoita-zerbitzuetan iraunkortasunez dauden eta bertako prestazioak jasotzen dituzten pertsonen kasuan.

Atseden-zerbitzu terapeutikoa eta etxez etxeko lagunza-zerbitzua bateratzen direnean, etxez etxeko lagunza-zerbitzuaren intentsitatea murriztu egingo da, zerbitzuaren araudian jasotakoarekin bat.

## **7. artikulua. Zerbitzuak emateko modua**



## AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA ZAINTZAILEEI LAGUNTZEKO UDAL-ZERBITZUAK ESKURATZEKO PROZEDURA

. ORRIA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak tokiko autonomia-printzipioa ezartzen du 4.2. artikuluko a) atalean, eta ondoren 9. artikuluan garatu. Ildo beretik, tokiko eskumenekoak diren gizarte-zerbitzuak emateko eta kudeatzeko jarduera publikoa zuzendu behar duten eraginkortasunaren eta efizientziaren printzipioak finkatzen ditu 4.2. artikuluko k) atalean. Horiek horrela, Ermuko Udalak egokientzat jotzen dituen kudeaketa-bideak eta -formulak ezarriko ditu, indarrean dagoen gainerako legeria betetzeari kalterik egin gabe.

### 3 BIGARREN TITULUA

#### 3.1 I. kapitulua

#### 3.2 ZERBITZUAN SARTZEN DIREN ETA KANPOAN GELDITZEN DIREN JARDUKETAK ETA BERAIEN EZAUGARRIAK

##### ***8. artikulua. Zerbitzuan sartzen diren eta kanpoan gelditzen diren jarduketak eta beraien ezaugarriak***

Kontuan hartu behar da zerbitzu horrek arretaren bi alderdi biltzen dituela: batetik, batez ere familia eta pertsona zaintzaileari zuzendutako atsedena, lagunza eta prestakuntza; bestetik, mendekotasun-arriskuan dauden edo mendekotasuna duten pertsonentzako prebentzia eta terapia. Bikoitzasun horretako bi alderdiek garantzi bera dute, zerbitzu integraltzat jotzen baita, baina formulazioak desberdinak dira batean eta bestean. Ildo horretan, familiarentzako atsedena eta lagunza prestazio erraztat jo badaiteke ere, terapia eta memoria eta psikomotrizitatea suspertzea lan zailagoa gerta daiteke.

Honako hauek dira ordenantza honen bidez araututako zerbitzuak:

1. Atsedenaren alderdian, honako hauek eskaintzen zaizkio familia zaintzaileari eta zaintzaile nagusiari:

- Prestakuntza, aholkularitza eta lagunza psikologikoa, zaintza-lanak arintzeko eta jarduna hobetzeko eta, horrela, zaintzailearen ongizateari eusten laguntzeko.
- Egunero-egunero, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaz arduratu barik egoteko denbora-tartea edukitzeko lagunza, asmo hauetarako:
  - Atseden fisikoa hartzeko.
  - Atseden emozionala hartzeko.
  - Aisialdian erabiltzeko.
  - Eguneroko lanak egiteko.
  - Betebehar pertsonalak betetzeko.

2. Mendekotasuna duten pertsonentzako zerbitzu terapeutikoari dagokionez:

- Errehabilitazio eta suspertze kognitiboa lantzea.
- Banakako arreta psikologikoa.
- Gorputza eta psikomotrizitatea suspertzea eta mantentzea, kasuan kasuko pertsonaren funtzionaltasun-mailaren eta gaitasunen arabera.
  1. Mantentze-gimnasia.
  2. Psikomotrizitatea.
  3. Erlaxazioa.

- Fisioterapia indibidualizatua, balorazioan antzemandako defizitak hobetzeko asmoz.
  - 1. Oinez ibiltzeko berriro heztea.
  - 2. Muskuluak indartzea.
  - 3. Gorputz-jarrera egokia mantentzen ikastea.
  - 4. Arnas-fisioterapia.
- Eguneroko jarduerei dagokienez, eguneroko oinarrizko jarduerak nahiz instrumentalak bultzatzea eta suspertzea.
  - 1. Begien eta eskuen arteko koordinazioa.
  - 2. Kontzentrazioa eta arreta.
  - 3. Lanterapia.
  - 4. Etxeko lanei lotutako jarduerak.
- 3. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua:
  - 1. Familia eta pertsona zaintzaileentzako informazioa, kudeaketa eta jarraipena.
  - 2. Zaintzaileentzako laguntza-taldeak eta autolaguntza.
  - 3. Zaintzaileentzako erlaxazio-tailerra.
- 4. Adinekoentzako memoria- eta psikomotrizitate-tailerra:
  - 1. Informazioa, balorazioa eta jarraipena.
  - 2. Interbentzio-taldearen esku-hartzeak, gizarte-heziketakoa eta psikosoziala.
  - 3. Laguntza soziala.
  - 4. Memoria suspertzeko jarduerak.
  - 5. Jarduera fisikoa suspertzeko jarduerak.

Ordenantza honen bidez araututako zerbitzuetatik kanpo daude:

- Janari-zerbitzua.
- Garraio egokituko zerbitzua.

## **9. artikulua. Autonomia sustatzeko eta zaintzaileei laguntzeko zerbitzuen ezaugarriak**

### **Nondik norakoa eta mugak**

Familiak mendekotasunaren zaintzan amore ez emateko prebentziorako baliabidea izatea da ordenantza horretan deskribatutako zerbitzuen funtsezko ezaugarrietako bat. Printzipio horrekin bat, zerbitzuok eskuratzeko aukera edukiko dute familia-ingurunean zainduak izanik, I. eta II. graduoko mendekotasuna duten pertsonek. Bertan sartuko dira, halaber, autonomoak izan arren euren etxeetan moldatzeko arazoak izanik, eguneroko jardueretarako familien laguntza behar duten pertsonak ere, txosten tekniko egokiaren bidez egiaztatuta. Era berean, adinaren edo mugaketa dakarten beste zaitasun batzuen ondorioz, mendekotasuna edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenek ere badute pertsonen autonomia sustatzeko zerbitzuak eskuratzeko aukera.

Aurretiaz adierazitakoari kalte egin gabe, indarrean dagoen legeria betetzeko, zerbitzua eskuratzeko lehentasuna izango dute:

- Bizkaiko Foru Aldundiak I. eta II. graduoko mendekotasuna aitortu dien pertsonak.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA ZAINTZAILEEI LAGUNTZEKO UDAL-ZERBITZUAK ESKURATZEKO PROZEDURA

. ORRIA

Bi pertsona edo gehiago egoera berdinean badaude:

- Familia-esparruan bakar-bakarrik emakumeen laguntza jasotzen duten pertsonek izango dute mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako baliabideak eta laguntza-taldeak eskuratzeko lehentasuna.
- Etxe-ingurunean mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenentzako prestakuntza-taldeetan sartzeko, berriz, gizonzkoek aurkeztutako eskaerek izango dute lehentasuna.

### **10. artikulua. Zerbitzuaren intentsitatea**

Orokorrean, ordenantza honetan araututako zerbitzuak urte osoan emango dira, zerbitzuaren egutegi eta programen arabera, uztailean eta abuztuan izan ezik. Izan ere, oro har, zerbitzuak irailera arte etengo dira. Halere, ez da beharrezkoa izango erabiltzaileak beste eskaera bat aurkeztea irailean berriro hasteko.

Zentroan eskaintzen den atsedenerako zerbitzuari dagokionez, oro har, zerbitzua emateko lanaldia astelehenetik ostiralera bitartekoa izango da, erabiltzaileak aukeratu beharreko bi txandatan: 10:00etatik 13:00etara goizeko ordutegian eta 15:00etatik 18:00etara arratsaldeko ordutegian.

Astean bi egunetan eskainiko da, egoera normalean. Eskatzaileak eta familiak aukeratuko dituzte egunak, beraien beharrizanen eta zentroaren erabilgarritasunaren arabera.

Gehienez hiru ordu emango dira egunean pertsona bakoitzeko, aukeratu dituzten asteko bi egunetan. Ordu horiek zerbitzuaren baitan zehaztuko dira eta ezin izango da zerbitzu-ordutegietatik kanpoko beste ordutegirik aukeratu. Tarte horiek ordenantza honen 9. artikuluan finkatutakoaren arabera zehaztuko dira.

Gainera, zerbitzu horren kasuan, aurreikusitako egutegia aldatzeko eta zerbitzua uztailean eta abuztuaren ere emateko aukera egongo da, zaintzaileak beharrezko badu. Dena dela, ondo arrazoituta eta txosten tekniko batek bermatuta egon beharko du.

## **II. kapitulua ERABILTZAILEEI BURUZ**

### **11. artikulua. Erabiltzailea nor den zehaztea**

Mendekotasun-arriskuan dauden pertsonak, I. eta II. graduko mendekotasuna dutenak eta familia zaintzaileak dira ordenantza honen bidez araututako zerbitzuen hartzialeak.

Balorazio hori eskuratu ez duten eta, beraz, mendekotasun-arriskuko pertsonatzat jotzen direnak zerbitzuaren onuradun izan ahalko dira, baldin eta leku libreak badaude eta Udalak horretarako bideratzen duen urteko aurrekontuak aukera hori ematen badu. Dena dela, txosten teknikoaren bidez egiaztatu beharko dute beti egoera.

## **12. artikulua. Zerbitzua eskuratzeko baldintza orokorrak**

A) Autonomia sustatzeko zerbitzuak eskuratzeko:

1. Zerbitzua eskatzen den unean Ermuko udalerrian erroldatuta egotea.
2. 70 urte baino gehiago edukitzea.
3. Zerbitzu bakoitzerao eskatzen diren baldintza bereziak betetzea.

B) Mendeko pertsonentzako eta familia zaintzaileentzako arreta-zerbitzuak eskuratzeko:

1. Mendeko pertsonei zuzendutako zerbitzu bereziak jasotzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak I. edo II. graduko mendekotasuna aitortua edukitzea. Mendekotasun-egoeran dagoen pertsona Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzunaren zain badago, zerbitzua tramitatzen hasteko aukera izango du, behin-behinean, foru-erakundearen aurrean eskaera egin duelako ziurtagiria aurkeztuz gero. Foru Aldundiaren erantzunaren arabera erabakiko du, gerora, Udalak ere.
2. Eskaera aurkezteko unean zaintzaile nagusia Ermuan erroldatuta egotea eta bertan erroldatuta jarraitzea zerbitzua jasotzen duen bitartean. Mendeko pertsona txandaka zaintzen duten familien kasuan, pertsona hori Ermuan bizi den bitartean zaintzaile nagusia izango denari eskatuko zaio baldintza betetzeko.

Halakoetan, zerbitzua eskuratu nahi duten pertsonek urtebetetzez egon beharko dute erroldatuta Euskal Autonomia Erkidegoan, eta horietatik eskaera egin aurre-aurreko azken sei hilabeteetan Ermuan.

Gainera, zerbitzuak eskuratzeko, familia eskatzaileak zaintzen duen pertsonak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Ermuan bizi izatea, bere etxearen nahiz zaintzaile nagusitzat jarduten duen senidearen etxearen.
- b) Hala badagokio, eta beharrezkoa bada, Atseden Zerbitzu Terapeutikoa zentroan erabiltzeko laguntza nahikoa edukitzea.
- c) Eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak eta jarduera instrumentalak egiteko laguntza behar izatea.
- d) Osasun-egoeraren ondorioz, ez behar izatea etengabeko laguntza osasun-instituzioetan.
- e) Ez izatea jokabide-nahasmendurik edota zerbitzuko kideak edo zerbitzuko profesionalak arriskuan ipin ditzakeen portaerarik.
- g) Gaixotasun infekzioso eta kutsakorra izanez gero, ez arbuiatzea dagokion tratamendua.

## **13. artikulua. Onuradunen eskubideak**

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizun eta kexen araubidea onartu zuen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren II. kapituluko lehen atalean finkatutakoaz gain, eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaz gain, honako eskubide hauek ere izango dituzte ordenantza honen bidez araututako zerbitzuen familia onuradunek zaintzen dituzten pertsonek:



## AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA ZAINTZAILEEI LAGUNTZEKO UDAL-ZERBITZUAK ESKURATZEKO PROZEDURA

. ORRIA

- Gizarte-diagnostikoa eta dagokion Arreta Plan Indibidualizatua edukitzea, zerbitzuaren helburuekin bat datozen emaitzak lortzeko.
- Zerbitzuaren baldintzetan aldaketarik egonez gero, aurretiaz horren berri jasotzea.
- Prestazioaren edo taldearen txanda aldatzeko eskatzea, behar bezala justifikatuta.

### **14. artikulua. Familia onuradunen betebeharak**

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizun eta kexen araubidea onartu zuen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren II. kapituluko Bigarren atalean finkatutakoaz gain, eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaz gain, honako betebehar hauek ere izango dituzte ordenantza honen bidez araututako zerbitzuen familia onuradunek:

Udal gizarte-zerbitzuei dagokienez:

- Gizarte-zerbitzuetako langileei familiaren egoera sozioekonomikoa baloratzeko dokumentuak helaraztea, eta euren etxebitzara sartzen lagatzea, balorazio hori eta ondorengo jarraipen-bisitak egiteko.
- Ermuko etxebitzaren batean benetan bizi izatea.
- Zerbitzuaren prestazioetan zehaztuta ez dagoen beste prestaziorik ez eskatzea.
- Udal-teknikariei denbora nahikoz jakinaraztea zerbitzua eskuratu eta gero sor litezkeen egoera pertsonalak, zerbitzua etetea eragin lezaketen lekualdaketa eta egoera sozioekonomikoaren aldaketa esanguratsu guztiak, ematen den zerbitzuaren edozein alderdi aldatzea eragin lezaketenak.
- Gizarte-laneko teknikariari jakinaraztea zerbitzua ematean antzemandako edozein gorabehera eta zerbitzuan eragin lezakeen edozein gaixotasun infekzioso edo kutsakor, zerbitzuko langileek beharrezko babes-neurriak har ditzaten.
- Emandako zerbitzuan zehaztutako epean, esleitu zaion prezioa ordaintzea, eta ordaintzea, halaber, eskatzaileari egotz dakioken arrazoi baten ondorioz egin gabe gelditu diren zerbitzuak ere.

Zerbitzuetako langileei dagokienez:

- Zerbitzua ematen parte hartzen duten profesionalen lana ahalbidetzea, eurekin elkarlanean jardutea eta zuzen eta begirunez tratatzea.

Betebehar horietako bat urratuz gero, zerbitzua amaitu edo bertan behera geldituko da, araudi honetan xedatutako prozedurarekin bat.

### **III. kapitulua.**

## **ZERBITZUA ESKURATZEKO PROZEDURA**

### **15. artikulua. Zerbitzua eskuratzea**

#### **15.1. Eskabidea**

Ordenantza honetan araututako zerbitzuak eskuratzeko eskaera egin beharko da, inprimaki normalizatua (I. ERANKSINA) erabiliz, herritarren arretarako udal-zerbitzuan (Abiapuntun).

Inprimakia interesdunak edo, hala badagokio, legezko ordezkariak sinatu beharko du. Desgaitasuna duen pertsona nahiz zaintzaile nagusia izan daitezke interesdunak.

Eskaera aurkeztu aurretik, nahitaezkoa da kasuaz arduratzen den gizarte-laneko teknikariarekin bilera egitea. Eskatzaileak aurretiaz halakorik egin ez badu, pertsona horren gizarte-diagnostikoa eta arreta-plan indibidualizatua burutu beharko ditu, erabaki-proposamena aurkeztu aurretik.

Erabakia hartu aurretik, prozesuaren edozein unetan, interesdunak nahiz haren legezko ordezkariak eskaera bertan behera lagatzeko aukera izango du, borondate hori agerian ipintzen duen edozein bide erabiliz (besteak beste, tramitazioaz arduratzen den gizarte-laneko teknikariak sinatutako diligentziaren bidez, baldin eta eskatzailearekin bildu denean eskaera bertan behera lagatzeko asmoa adierazi badio; edota bide elektronikoak edo telematikoaz erabiliz, Administrazio elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak xedatutakoarekin bat). Hori eginez gero, expedientea amaitutzat eman eta artxibatu egingo da.

## 15.2. Dokumentazioa

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da zaintzaile nagusiari buruz, mendekotasuna duen pertsonari buruz eta, hala badagokio, familia-unitateko gainerako kideei buruz:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia, edo horren baliokidea den beste edozein identifikazio-agiri.
- Familia-liburua, baldin eta familia-unitatean 18 urtetik beherako kideak badaude.
- Mendekotasuna Baloratzeko Unitateak egindako balorazioa, hala badagokio.
- Hala badagokio, organo ofizial eskudunak emandako minusbaliotasun-ziurtagiria.
- Txosten medikoa, IV. eranskinean agertzen den eredu normalizatuaren arabera.
- Familia-unitateko kideen erroldatze-ziurtagiria.
- Egoera ekonomikoari buruzko datuak.
  - Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitorpenaren fotokopia edo, hala badagokio, halakorik egiteko obligaziorik ez duela dioen ogasun-ziurtagiria.
  - Pentsioa ordaintzen duen organismoak emandako pentsio-ziurtagiria, pentsio-mota eta pentsioaren zenbatekoa zehaztuta.
  - Aurrezki-libretak, kontu korronteak, bonoak, akzioak, epe finkorako orriak eta abar dituen banku-erakunde guztien posizio eguneratuen ziurtagiria.
  - Azken nominaren edo nominen (nomina aldakorra bada) fotokopia.
  - Prestazio ekonomikoengatik jasotako zenbatekoen eta beste diru-sarrera batzuen ziurtagiriak.
  - Ezarritako prezioaren hileko ekarprena egiteko erabiliko den kontu korronteari dagokion banku-erakundea eta zenbakia.
  - Gastu kengarrien ziurtagiriak (alokairua, hipoteka-kreditua...).
- Eskatzaileak ez badu bere egoera ekonomikoa baloratzerik nahi edo ez badu behar bezala justifikatzen, zerbitzuagatik ezarritako kostu osoa ordaindu beharko du. Nahitaez sinatu beharko du hori agiri batean.
- 12.2) artikuluan jasotako egoera bada, jatorrizko udalerriko gizarte-zerbitzuen txostena, une horretan jasotzen dituen zerbitzuak zehazteko.



## AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA ZAINTZAILEEI LAGUNTEZEKO UDAL-ZERBITZUAK ESKURATZEKO PROZEDURA

. ORRIA

- Udal gizarte-zerbitzuen ustez, eskaeraren inguruko erabakia hartzen lagunduko duen beste edozein dokumentazio.

Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa akastuna bada edo zerbait falta bazaio, eskatzaileari 10 eguneko epea emango zaio falta den dokumentazioa ekartzeko edo akatsak zuzentzeko. Hori egin ezean eskaera bertan behera geldituko dela jakinaraziko zaio.

Berari buruzko datuak egiaztu edo biltzeko baimena emango dio eskatzaileak Udalari. Eskatzaileak araudi honetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela egiazatzeko eta, hala badagokio, zerbitzua finantzatzeko baldintza eta baliabide ekonomikoak egiazatzeko begiratuko ditu Udalak erabiltzailearen datuak.

Gezurrezko datuak eman edo datuak ezkutatuz gero, eskaera bertan behera geldituko da, sor litzkeen gainerako erantzukizunez gain.

### 15.3. artikulua. Zerbitzuaren itxarote-zerrenda

Eskatzaileen zerrenda da zerbitzua esleitzeko lehentasunak ordenatzeko bidea, betiere sartzeko lehentasunen baremoan eskuratu duten puntuazioa kontuan hartuta. Horiek horrela, ordenantza honen bidez araututako zerbitzu guztiak izango dute eskatzaileen zerrenda eta, baremo bidez arautzen ez denean, eskabidearen ordena kronologikoak aginduko du.

Autonomia sustatzeko zerbitzuei dagokienez, gizarte-zerbitzuek urtero argitaratuko dute zenbat plaza dauden libre eskainitako jarduera bakoitzean. Libre dauden plaza guztiak bete ondoren, itxarote-zerrenda osatuko da, gerora libre gera litzkeen plazak betetzeko. Zerbitzu horiek ezin eskuratzeak ez dakar ZAPE kobratzea.

Mendekotasunerako arreta-zerbitzuen kasuan, I. edo II. graduko mendekotasuna baloratu zaien edo mendekotasun-arriskua aitortuta duten pertsonek zerbitzua jasotzeko eskubide subjektiboa dute. Ondorioz, sartzeko baldintzak betez gero, zerbitzuan sartzeko itxarote-zerrendak ez du iraungo sei hilabete baino gehiago, eskabidea aurkeztu duten egunetik zenbatuta.

Epe hori igarota udal gizarte-zerbitzuek ezin izan badiote zerbitzua eskaini eskubide subjektiboa aitortua duen pertsonari, zerbitzuari atxikitako prestazio ekonomikoa (ZAPE) jasotzeko procedura aktibatu beharko da.

Eskaera eragin duen arrazoia «gizarte-larrialdia» dela jo bada, eskaera jaso eta hogeita hamar egunera aktibatuko da ZAPEa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan zehaztutako mugen eta irismenaren baitan.

Autonomotzat baloratutako pertsonei dagokienez, eskabide guztiei aurre egiteko aurrekontu-zuzkidurak ez badago, atsedenerako zerbitzurako itxarote-zerrenda berezia osatuko da. Horrenbestez, kasu horretan, eskaera jaso den dataren ordena zorrotz errespetatuz zehaztuko da lehentasuna, betiere zerbitzua jasotzeko eskubide subjektiboa duen eskatzailerik ez badago aurretik.

### 15.4. Baldintza ekonomikoak

Autonomia sustatzeko eta zaintzaileei laguntzeko zerbitzu jakin batean erabiltzaileak ekarpen ekonomikoa edo koordainketa egin behar badu, Ermuko Udalak arautuko du horren funtzionamendua, 21. ordenantza fiskalaren bidez.

## **15.5. Osasun-fitxa**

Eskaerekin batera, eskatzailea artatu ohi duen medikuntzako profesionalak betetako osasun-fitxa edo -txostena erantsi beharko da. Zehazki, II. ERANSKINEAN agertzen den osasun-fitxan jasotako informazioa agertu beharko da txosten horretan.

### **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Aldian-aldian, adinekoentzako zerbitzuaren onuradunen egoera sozioekonomikoa berrikusi egingo da, baldintzak betetzen direla eta diru-sarreretan edota ondasunetan aldaketarik egon ote den egiazatzeko.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Ordenantza hau indarrean sartu den egunean oraindik erabaki gabe dauden eskaera guztietan goitik behera ezarri beharreko araudia izango da.

Araudi hau indarrean sartu aurretik zerbitzuaren onuradunak ziren pertsonen espedienteak berrikusi egingo dira, ordenantza honetan araututakoari egokitzeo.

### **AZKEN XEDAPENAK**

1. Ordenantza honetan berariaz araututa ez dauden alderdiei dagokienez (hala onuradunen harira nola zerbitzua eskuratzeko baldintzen harira), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 2015/185 Dekretua ezarriko da.

2. Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, zerbitzua eskuratzeko eskaeretan eta eskaerak tramitatzeko erantsi beharreko dokumentazioan agertzen diren datuak Ermuko Udalaren fitxategietan eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte.eus fitxategian sartuko dira. Asmoa hauxe da: gizarte-zerbitzuek artatutako pertsonen datuak erregistratzea, erabiltzaileentzat beharrezkoak diren eskaerak eta tramiteak kudeatzea, eta eskaera egin duten pertsonei laguntza ematea, hurrenez hurren. Eskatutako datuak nahitaezkoak dira asmo hori betetzeko eta, beraz, daturik eskuratu ezean ezin izango da zerbitzurik eskaini.

Ermuko Udal da fitxategien arduraduna eta, hartara, emandako datuak ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera bermatuko du. Horretarako, idatzi bat bidali beharko da Abiapuntu udal-bulegora. Era berean, datuen konfidentzialtasuna errespetatzeko eta fitxategiaren helburuarekin bat erabiltzeko konpromisoa hartzen du Ermuko Udalak. Dena dela, gerta daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko eta lurralte historikoko beste erakunde publiko batzuei ematea, datuak jasotzeko asmoa burutzeko nahiz fitxategiaren arduradunaren legezko betebeharra betetzeko.

Eskatzaileek euren ardurapean aitortzen dute eskaeran emandako datuak egiazkoak direla. Ildo beretik, Udalari baimena ematen diote emandako datuen egiazkotasuna ziurtatzeko asmoz, titulartasun publikoko fitxategietan kontsultak egiteko eta datuak aipaturiko fitxategietan gordetzeko, aurretiaz aipaturiko baldintzen pean. Azkenik, eskatzaileek euren egoeran aurrerantzean gerta daitezkeen aldaketa guztien berri eman beharko diote Udalari.

3. Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunera sartuko da indarrean.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA ZAINTAILEEI LAGUNTZEKO UDAL-ZERBITZUAK ESKURATZEKO PROZEDURA

. ORRIA

4. Horretaz gain, Udalaren webgunean ere argitaratuko da. Ermuan, 2018ko XXXXren XXXX(e)an.

### I. ERANSKINA. ESKABIDEA

#### ESKABIDEA AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA ZAINTAILEEI LAGUNTZEKO ZERBITZUAK ESKATUTAKO MODALITATEA: Atsedenerako eta memoria lantzeko tailerra Terapeutikoa Zaintzaileei laguntzeko

#### MENDEKOTASUNA DUEN PERTSONAREN DATU PERTSONALAK

LEHENENGKO ABIZENA		BIGARREN ABIZENA		IZENA
JAIOTEGUNA	ESTATUA	TELEFONOA	GIZARTE-SEGURANTZAKO ZENBAKIA	NANA
HELBIDEA		HERRIA	BARRUTIA	PROBINTZIA

#### BIZIKIDETZA-EGOERA

MENDEKOTASUNA DUEN PERTSONAREKIN BIZI DIRENAK				
IZEN-ABIZENAK	NANA	AHAIDETASUNA	ADINA	MINUSBALIOTASUNA


ERREFERENTZIAKO PERTSONA	HARREMAN-MOTA	TELEFONOA

### ESKATZEN DITUEN ZERBITZUEN ORDUTEGIA


Goizeko txanda       Arratsaldeko txanda

Oharrak

Nire erantzukizunpean adierazten dut emandako datuak egiazkoak direla eta jakinaren gainean nagoela  
datu horietan sortutako edozein aldaketa Zerbitzuari jakinarazteko betebeharraz.

Ermuan, 20XXko .....ren .....(e)an

Sinadura: .....



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA ZAINZIALEEI LAGUNTZEKO UDAL-ZERBITZUAK ESKURATZEKO PROZEDURA

. ORRIA

### II. ERANSKINA AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA ZAINZIALEEI LAGUNTZEKO ZERBITZUEN OSASUN-FITXA

- Osagile honek egindako txostena: \_\_\_\_\_ Elkargoa: \_\_\_\_\_ Elkargokide-zenbakia:

- Etxez etxeko lagunza-zerbitzuaren eskatzailearen izen-abizenak \_\_\_\_\_ NAN zenbakia: \_\_\_\_\_

- Osasun-arazorik handienak

A) \_\_\_\_\_ E) \_\_\_\_\_  
B) \_\_\_\_\_ F) \_\_\_\_\_  
C) \_\_\_\_\_ G) \_\_\_\_\_  
D) \_\_\_\_\_ H) \_\_\_\_\_

- Ohiko medikazioa

A) \_\_\_\_\_ E) \_\_\_\_\_  
B) \_\_\_\_\_ F) \_\_\_\_\_  
C) \_\_\_\_\_ G) \_\_\_\_\_  
D) \_\_\_\_\_ H) \_\_\_\_\_

- Nora ezean ibiltzen da:

- Ohiko medikazioa

Bakarrik  
 Bakarrik, lagunza teknikd**rekina**:  Makila  Taka-taka  Gurpildun aulkia  
 Beste pertsona baten lagunza  
 Ohean

- Gaitasun kognitiboa: Normala Narriadura kognitibo arina-ertaina Narriadura kognitibo larria-oso larria

- Zentzumenak:

	IKUSMENA	ENTZUMENA	HIZKUNTZA
Normala edo defizit arina			
Defizit ertaina edo larria, baina egokituta			
Erabateko defizita			

- Oharrak: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_  
Data eta sinadura

